

II. MUGAGABEA (1)

- Izenak singularrean eta pluralean erabiltzen badakizu:

Liburua	ekarri dut
Liburuak	ekarri ditut

Askotan, ordea, izenak ez du erreferentzia jakina eta orduan indefinido edo mugagabe bezala jotatzen du:

Zer liburu nahi duzu?
Edozein liburu irakurtzen al duzu?

- Noiz erabiltzen da mugagabekoa?

- | | | |
|--------------------------------|----------------------|---|
| 1. Zer, zein, zenbat... | galdetzaileekin: | zer liburu?
zenbat mutil?
zein etxe? |
| 2. Edozer, edozein... | indefinidoekin: | edozein auto
edozer kirol |
| 3. Zenbatzaileekin, | indefinido direnean: | bi gizon
hiru andre
nahiko diru
lagun asko |

Gogoan hartu, hala ere, zenbakiak **mugatuak** direla batzuetan eta **mugagabeak** beste batzuetan:

bi,	'dos'	hiru gazte,	'tres jóvenes'
biak,	'los/las dos'	hiru gazteak,	'las/los tres jóvenes'

II.1. NOR eta NORK MUGAGABEAN

- Gogoratu mugagabeak kasu markak hartzen dituela, baina ez artikulua:

Zein liburu nahi duzu? (ez: zein liburua)
Zein medikuk esan du hori (ez: zein medikuak)

- Hortaz, hau da mugagabeko **nor** eta **nork** kasuen forma:

NOR		gazte, lagun
NORK	bokal + K kontsonante + eK	gaztek, nagusik gizonek, zakurrek

Adibidez:

 Bi gazte etorri dira
Zein etxe gustatu zaizu?
Ez da edozein liburu irakurri behar

Hiru gaztek egin dute pintada hori
Edozein gurasok egiten du hori
Zein lantegik zikindu du ibaia?

Hiru lagunak ireki dute taberna berri hori
Edozein zakurrek ez du etxea zaintzeko balio
Zenbat zuhaitzek izan dute gaixotasun hori?

Gogoratu:

1. **Asko, gutxi, gehiago, gehiegi...** zenbatzaile mugagabeak dira:

Jende asko/gutxi/gehiegi/gutxieg... etorri da
Jende askok/gutxik/gehiagok/gehiegik... daki hori

2. Zenbakiekin ondo berezi behar dira **mugatua** eta **mugagabea**:

Bost pertsonak galdu dute bizia - Cinco personas han perdido la vida
Bost pertsonak galdu dute bizia - Las cinco personas han perdido la vida

Hiru neskek prestatu dute afaria - Tres chicas han preparado la cena
Hiru neskek prestatu dute afaria - Las tres chicas han preparado la cena

Bi gaztek irabazi dute - Dos jóvenes han ganado
Bi gazteek irabazi dute - Los dos jóvenes han ganado

ARIKETAK

1. Bete hutsuneak parentesi arteko hitza **nor** edo **nork** mugagabeen erabiliz:

- | | |
|--|----------------|
| 1. Edozer ... egiten du horrek | (gauza) |
| 2. Zenbat ... ezkontzen da berriro? | (alargun) |
| 3. Zenbat ... ordaintzen ditu zergak? | (jende) |
| 4. Lau ... bik baino gehiago ikusten omen dute | (begi) |
| 5. Bost ... gertatu dira zaurituta eta beste ... galdu dute bizia | (pertsone; bi) |
| 6. Jende ... daki sekretu hori | (gehiagi) |
| 7. Gaur egun, edozein ... dauka igogailua | (etxe) |
| 8. Edozein ... erakutsiko dizu bidea | (ertzain) |
| 9. Aralarren zebilela galdu zenean, bi ... eraman zuten bideraino | (artzain) |
| 10. Ikasle ... aukeratzen dute ingelesa frantsesa baino | (gehiago) |
| 11. Zein ... ezkondu ditu? | (apaiz) |
| 12. Hiru ... zekartzan gaurko egunkariak | (asmakizun) |
| 13. Zenbat ... falta dira kurtsoa amaitzeko? | (aste) |
| 14. Denda ... egiten dute egun hauetan merkealdia | (asko) |
| 15. Zenbat ... botako dizut kafean? | (azukre) |
| 16. Zein ... gustatzen zaizu gehiago, Durangokoa ala Zumarragakoa? | (feria) |
| 17. Bi gazte ... ekarri naute bere autoan | (atsegin) |
| 18. Oso sentibera zen, edozer ... egiten zion min | (gauza) |
| 19. Zein ... egin dizu biblioteka hori? | (arotz) |
| 20. Edozein ... ez du balio margotzeko | (arkatz) |
| 21. Edozein ... piztea berdin zaizu? | (argi) |
| 22. Zein ... du aulki gehiago? | (areto) |
| 23. Bi ... ditugu eta biak zein baino zein altuago dira | (alaba) |
| 24. Jende ... daki ingelesez ondo hitz egiten | (gutxi) |
| 25. Nahiko ... etorri da | (jende). |

2. Euskaratu (zenbakia denean, ondo begiratu **mugatua** ala **mugagabea** den):

1. Cuatro personas vieron el accidente, pero nadie llamó a la policía.
2. Eso no lo hace cualquiera.
3. Es muy tímido, cualquier cosa le asusta.
4. La semana tiene siete días.
5. En esa casa viven tres chicas y dos chicos. Las tres chicas son estudiantes y uno de los chicos periodista.
6. Cuando iba a trabajar me han saludado tres chicas jóvenes. Creo que eran amigas tuyas.
7. ¿Cuántos obreros han hecho huelga?
8. El que no tiene nada acepta cualquier cosa.
9. No sabíamos cuántos días íbamos a pasar, pero por si acaso llevamos mucha ropa.
10. Cualquier día es bueno para ir al cine.
11. No me habéis dicho cuánto dinero necesitáis.
12. ¿Qué cura casó a tus amigos?
13. Los que ganan demasiado no saben en qué gastar el dinero.
14. Cada vez más chicas trabajan fuera de casa.
15. Muchos jóvenes no saben qué profesión elegir.



Testuak lantzen

1 *Ipini, behar bada, atzizkia hutsuneetan:*

Atzo korritu zen Euskal Herriko Itzuliaren bostgarren eta azken etapa: Ibardin-Durango. Guztira 200 kilometro... egin zituzten txirrindulari... . Donostian sartzera-koan, Italiako bi korrikalari... tropelari aurea hartu eta ihesaldi luzeari hasiera eman zioten. Horrela pasatu zituzten Zarautz, Zumaia eta beste zenbait herri... . Elgoibarra iritsi zirenean, ordea, tropela mugitzen hasi zen eta aldea gutxitzen joan zen poliki-poliki. Bergarako sarreran harrapatu egin zituen tropelak alde egindako bi txirrindulari italiar... . Bergarako irteeran, berriz, ezbehar larri bat gertatu zen: bi zakur... ir-ten ziren bidera tropela pasatzen ari zenean. Ez dakigu zein txirrindulari... bapatean frenatu egin zuen eta ondotik zetozen guztiak lurrera erori ziren. Hamar txirrindulari... arinki zaurituak gertatu ziren eta beste bi... zauri larriak izan zituzten. Handik aurrera txirrindulariak ez ziren gehiegi saiatu eta denak batera joan ziren helmuga-raino.

—

2 *Irakurgaia .*

HIZKETA PRIBATUA

Bi neska-mutil pasiatzera irten ziren igande arratsalde batean, baina ez ziren urrutira joan; haize hotza zebilen eta bapatean euria hasi zuen, gogor hasi ere. Aterpe batera joan ziren korrika. Hantxe egon ziren pixka batean, baina ez zuen atertzen eta hozten hasi ziren. Ez zeuden gustora.

—Ezin gara horrela egon —esan zion neskak mutilari—. Oinak hotz-hotzak dauzkat.

—Joango al gara zinera? —galdetu zuen orduan mutilak—. Aste honetan ez gara oraindik izan.

—Ez da ideia txarra... , bi edo hiru pelikula badira on samarrak. 'Telma and Louise', adibidez. Nire bulegoko bi neskak ikusi dute eta izugarri gustatu omen zaie.

Horrela, bada, zinera joatea erabaki zuten. Zinera heldu zirenean, jende asko zegoen zain sarrerak hartzeko. Iritsi ziren noizpait leihatilara.

—Zenbat sarrera behar dituzue? —galdetu zien sarrera-saltzaileak.

—Bi —erantzun zuen mutilak—, ez oso aurrean, mesedez.

—Zenbakigabeak dira txartelak. Libre aurkitzen duzuen lekuan eseri beharko duzue.

Sartu ziren barrura eta leku gehienak hartuak zeuden. Hamargarren lerroan, ordea, bi aulki zeuden libre. Harritzekoa zen, oso leku ona baitzen hura. Eseri ziren, bada, han eta berehala argiak itzali eta pelikula hasi zen. Atzeko lerroan, ordea, bi emakumek lasai-lasai jarraitu zuten hizketan. Mutila gero eta urduriago zegoen.

II. MUGAGABEA (2)

- Aurreko ikaskailan forma mugagabeak ikasten hasi gara. Orain, aurrera jarraituz, **nori** eta **noren** kasuak ikasiko ditugu. Gogoan izan, hori bai, mugagabea *galdetzaileekin*, *indefinidoekin* eta *zenbatzaileekin*, batzuetan, erabiltzen dela:



Zein laguni esan diozu etortzeko?
Edozein gizoni ezin zaio horrelakorik esan
Bi gazteri tokatu zaie loteria

Zein lagunen etxean izan zara?
Edozein gurasoren nahia da seme-alabak pozik ikustea
Bost egunen buruan itzuliko gara

II.1. NORI MUGAGABEAN

- Forma:

konsonante	+ l	gizoni
bokal	+ ri	gazte-r-i

- Horrela:

zeini, nori, zeri, zenbati, inori, ezeri, edozeini, zenbaiti, bati...
askori, gutxiri, gehiagori, gehiegiri, biri, hogeiri....

ARIKETAK

1. Bete hutsuneak parentesi barruko hitza **nori mugagabe**an erabiliz:

- | | |
|--|---------------------|
| 1. ... esaten al diozu etxean sartzeko? | (edozein) |
| 2. Tolosako bi ... tokatu zaie loteria. | (neska) |
| 3. Zein ... eman zenion koaderno? | (irakasle) |
| 4. Zenbait ... ezin zaio bromarik egin. | (jende) |
| 5. Esan ... edo ... pasatzeko. | (bi; hiru) |
| 6. Jende ... kontatu diozu hori. | (gehiegi) |
| 7. Zein ... eskatu behar diozu dirua? | (osaba) |
| 8. Nire herriko andre ... eman diote lehen saria. | (bat) |
| 9. Jende ... gustatzen zaio futbola. | (asko) |
| 10. Beste ... , berriz, ez zaie batere gustatzen. | (zenbait) |
| 11. ... bidali behar diozu postal hori? | (zein) |
| 12. ... ez zaio gaez gidatzea gustatzen | (zenbait) |
| 13. Aurten jende ... eman diote Ameriketara joateko beka: hiru ... eta neska ... | (gutxi; mutil; bat) |
| 14. Edozein ... ezin zaio dirua utzi. | (pertsona) |
| 15. Zenbat ... bidali diezu gonbitea? | (lagun) |

2. Euskaratu:

1. ¿A quién se le ha perdido este reloj?
2. Pedí ayuda a dos chicos que había allí.
3. No abras la puerta a cualquiera.
4. La beca se la han dado a una chica de mi barrio.
5. Todavía tengo que llamar a otras dos amigas.
6. A mí me ha gustado mucho la película, pero a algunos les ha parecido dura.
7. No se lo dijimos a nadie.
8. Hemos enviado la propaganda a unas mil personas.
9. ¿A cuánta gente debes dinero?
10. Tendremos que dejar pasar a más gente.



II.2. NOREN MUGAGABEAN

- Forma:

kontsonante	+ EN	gizonen
bokal	+ rEN	gazte-r-en

Horrela:

zeinen, noren, zeren, zenbaten, inoren, ezeren, edozeinen, zenbaiten, baten...
askoren, gutxiren, gehiagoren, gehiegiren, biren, hogeiren...

- Erabilera

Ondo dakizunez, azken kasu hau izenaren osagarri bezala erabiltzen da batzuetan eta sustantibatua besteetan:

Zeinen argazkia da hori? (*¿La foto de quién...?*)

Norbaiten laguntza behar dut

Bi lagunen bisita izan dut

Zeinenak dira giltza hauek? (*¿De quién...?*)

Norbaitenak izango dira

Bi lagunena da denda hori

ARIKETAK

1. Bete hutsuneak parentesi barruko hitza **noren mugagabea** erabiliz:

- | | |
|---|------------|
| 1. ... baimena zenuen hori egiteko? | (nor) |
| 2. Bi ... oparia da hori | (adiskide) |
| 3. ... artean egin dute liburu hori | (asko) |
| 4. Mendian galdutako gazte ... bila abiatu dira | (bat) |
| 5. Eibarko bi ... lanak irabazi du lehen saria | (neska) |
| 6. ... dira betaurreko horiek? | (zein) |
| 7. Hiru ... artean konpondu dute baserri hori | (familia) |
| 8. Betiko joan omen zen, baina lau ... buruan etxean zen berriro | (egun) |
| 9. Bederatzi gara. Beraz, beste ... beharra dugu taldea osatzeko | (bi) |
| 10. ... zain al zaudete? | (norbait) |
| 11. Ez du aspertzeko denborarik. Gaur ere hiru ... bisita izan du | (lagun) |
| 12. Pasaporte bat eskatu du hoteleko arduradunak; ... berdin da | (edozein) |
| 13. Zenbait ikasleren lanak txukunak eta garbiak izaten dira.
Beste ... , berriz, ezin dira irakurri ere | (zenbait) |
| 14. Perretxiko asko ekarri dute, baina ... bila joan dira | (gehiago) |
| 15. Orkatila bihurritu zuen eta orain bi ... laguntzaz ibiltzen da | (makulu) |

2. Euskaratu (**noren** kasua erabiliaz):

1. ¿A quién esperas?
2. ¿En busca de quién han ido?
3. Al cabo de algunos días volvió al pueblo
4. Han hecho la casa entre tres hermanos.
5. Todavía falta la respuesta de mucha gente.
6. Lo que es de muchos no es de nadie.
7. ¿En casa de quién estás?
8. He recibido la carta de dos amigas de Alemania.
9. Se ha quedado en casa de un amigo de Bilbao.
10. ¿De quién es este disco?



II. MUGAGABEA (3)

- Gogora ezazu noiz erabiltzen diren forma mugagabeak

1. <i>Galdetzaileekin:</i>	Zein etxetan bizi da?
2. <i>Zenbatzaileekin, batzuetan :</i>	Bi dendatan sartu naiz
3. <i>Indefinidoekin :</i>	Edozein lekutara ez da joan behar
4. <i>Esaera batzuetan :</i>	Baketan, eguzkitan, uretan...

II.1. NON, NONDIK, NORA MUGAGABEAN

- Forma :

	bokal	kontsonante	
NON	-TAN	-eTAN	edozein dendatan edozein autobus-e-tan
NORA	-TARA	-eTARA	edozein tokitara edozein bezterr-e-tara
NONDIK	-TATIK	-eTATIK	edozein herritatik edozein zuhaitz-e-tatik

- Ondoko esaerak mugagabeen daude. Maiz erabiltzen direnez, buruz ikastea komeni da :

argitan :	jarri zaitez argitan	(a la luz)
eguzkitan :	jarri eguzkitan	(al sol)
euritan:	ez ibili euritan	(bajo la lluvia)
elurretan :	pozik dabil elurretan	(en la nieve)
uretan :	arrautza uretan pasatuak	(en agua)
sutan :	eltzea sutan dago	(al fuego)
	gizon hori sutan dago	(enfadado, encendido)
ametsetan :	ametsetan dago	(soñando)
baketan :	ez al duzu baketan utzi behar?	(en paz)
izerditan :	izerditan etorri da	(sudando)
begitan hartu :	begitan hartu du	(ojeriza)
zorretan:	ez utzi zorretan	(en deuda)
benetan :	benetan ari zara?	(en serio)
txantxetan :	ez esan hori txantxetan ere	(en broma)
tokitan :	tokitan dago!	(en buen sitio!)
hizketan/berbetan :	norekin ari zinen hizketan?	(hablando)
kontutan hartu :	hartu kontutan esan dizutena	(en consideración)

Eta berdin: askotan, gutxitan, gehiegitan, bitan, birritan, txikitan, gaztean...

ARIKETAK

1. Amaitu esaldiak parentesi barruko hitza behar bezala erabiliz :

NON

- | | |
|--|-----------|
| 1. Talgoa ez da gelditzen hiru ... baizik | (geltoki) |
| 2. Zein ... erosi duzu arropa hori? | (denda) |
| 3. Zer ... iritsiko zarete bihar? | (ordu) |
| 4. Utzi jendea ... ! | (bake) |
| 5. Ezin da autoa edozein ... utzi | (leku) |
| 6. Liga Errealak irabaziko duela uste baduzu, ... zaude | (amets) |
| 7. Jarri arropa horiek ... , bestela ez dira lehortuko | (eguzki) |
| 8. Ez da komeni ... bat-batean sartzea | (ur) |
| 9. Bizpahiru ... izan naiz eta ez didate inon ireki | (etxe) |
| 10. Zer ... hasi behar duzu lanean? | (egun) |
| 11. Auto batean joan ginen denak, baina ... itzuli ginen | (bi) |
| 12. Gaur egun ezin da edozein ... erre | (toki) |

NORA

- | | |
|--|--------------|
| 13. Zein ... eramán dute nire laguna? | (ospitale) |
| 14. Zenbait ... ez da ura iristen | (etxe) |
| 15. Zenbat ... bidali duzue jaialdiaren propaganda? | (herri) |
| 16. Hamar ... bidali genuen inkesta, baina ... ez omen da iritsi | (eskola; bi) |
| 17. Edozein ... joanda ere, ondo moldatzen da hori | (leku) |
| 18. Bota ezazu ... txikle zahar hori | (zabor) |
| 19. Perretxikoak bi ... prestatuko ditut | (era) |
| 20. Etor zaitezte ... , hemen beroago egongo zarete | (eguzki) |

NONDIK

- | | |
|---|----------|
| 21. Zein ... bota dute puro-hondar hori? | (leiho) |
| 22. Zer ... dator zarata hori? | (etxe) |
| 23. Bi ... etorri zaigu albiste bera | (leku) |
| 24. Goizeko trenean datorren jendea herri ... dator | (asko) |
| 25. Gure herriko bi ... ikusten da itsasoa | (tontor) |

